



# Aurrera!

28. zk.

2007ko abendua

Informatika eta Telekomunikazioetako Teknologia Berriak Jendarteratzeko Aldizkaria

ITZko Bulego Teknologikoak argitaratua

## AURKIBIDEA

➤ JustiziaBAT	2. or.
➤ Dokumentu elektronikoak	6. or.
➤ Alboan: KZgunea eta IT-Txartelak	10. or.
➤ Laburrak: Justina	12. or.
EJIE. 25. urteurrena	

**1** 987. urtetik, Autonomia Erkidego ezberdinek Justizia Administrazioaren eremuan eskumenak jasotzen hasi zirenetik, Autonomia Erkidegoek beren kudeaketarako prozesu ezberdinen euskarri diren elementu teknologiko guztiak berritu dituzte (barrukoak zein kanpokoak). Gure kasuan, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak abian jarritako proiektu izarrak **JustiziaBat** izena du. Proiektu horrek, aldizkari honetan azaltzen dizuegun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa eremu horretako erreferente gisa ezartzeko helburua duten moduluak ditu.

Bigarren gaiaren barruan Herri Administrazioek zein enpresa pribatuek izaten dituzten alderdi zailenetako batez jardungo dugu oraingoan: **dokumentu elektronikoak** epe luzera gordetzeaz.

Alboan izeneko atalean denok entzuna dugun gai bati buruz hitz egingo dugu oraingoan: **IT-Txartela** ziurtagiriaz. Txartel horien inguruan izan dezakezuen informazioa osatzeko asmoz, **KZgunea**rekin duten loturaren inguruan xehetasunak emango dizkizuegu, baita gero eta hedatuagoak dauden mota horretako ziurtagiriak izatearen garrantziari buruz ere.

Ba al dakizue nor den **Justina**? Ez? Pertsonaia maitagarri horren bitartez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak justizia-kontzeptua etxeko txikienei hurbiltzea du helburu, baita web-orrin dituen zerbitzu ezberdinak sustatzea ere. Gainera, jakin ezazue denbora gutxi barru, proiektuaren arduradunek pertsonaien zerrenda luzatzeko asmoa dutela... aurrerago emango dizuegu horren inguruko informazioa.

Azkenik, Aurrera! aldizkariaren izenean, **EJIE** zoriondu nahi dugu aurten 25. urteurrena bete duelako, eta espero dugu langile guztiekin askoz gehiago ospatu ahal izatea, Zorionak!

Ospakizunekin jarraituz, eta egun hauek direla-eta, **Jai Zorionsuak eta Urte Berri On** irakurle guztiei.




## JustiziaBAT

### Prozesu-kudeaketako sistemen erreferentea



Irtenbide honen helburua epaitegi eta auzitegiatan Justizia Administrazioaren zerbitzua -barrura zein kanpoaldera- emateko modua optimizatzea da.



#### HIZTEGIA

<sup>(1)</sup> **Eskualdaketak:** Euskal Autonomia Erkidegoa izan zen Justizia Administrazioa berritzen hasi zen lehenengoa, 1987. urtean eskumenak eskuratu ondoren.

#### <sup>(2)</sup> **IKT planak:**

Informatika Judizialaren lehenengo Planak (1990-1995) espediente judizialak izapidetzeko tresnak garatzen eta ezartzen jarri zuen arreta.

Bigarren Planak (1996-1999) alderdi teknologikoagoak hartu zituen kontuan: Komunikazio Sarearen, informazio dokumentalaren zerbitzuaren, eta abarren sorrera.

Hirugarren Planak (2000-2003) elkarlan-ereduak erabiltzen hasia ekarri zuen: web-baliabideak, intranetak, extranetak, etab.

[www.justizia.net](http://www.justizia.net)

**J**ustizia-arloan<sup>(1)</sup> Euskal Autonomia Erkidegoari eskumenak eskualdatu zitzaizkionetik, Justizia Administrazioa, honek Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei eskaini behar dizkion zerbitzuen hobekuntzak bultzatzen dituen elementu gisa, prozesu-kudeaketaren informazio-sistemen eragimena eta eraginkortasuna bilakatzeko prozesu iraunkorrean dago murgilduta.

#### LEHENENGO URRATSAK. EJ-tik JBAT-era

Gutziz garatutako informazio judizialaren lehenengo sistema, eta egoitza batzuetan oraindik erabiltzen dutenak **EJ** (Justizia Ingurua) izena du eta terminaletatik sartzeko host sisteman dago oinarrituta. Sistema hori, zerbitzuen eskaintza hobetzen duen arren, teknologia berri batzuk sartzan uzten ez duen ingurune zaharkitua da.

Orain arte justizia-arloan<sup>(2)</sup> informatizatzeko zenbait plan atera dituzte; honakoak izan dira helburu nagusiak:

- Autonomia Erkidegoan Justiziaren Zerbitzu Publikoa berritzea, kudeaketa-eredu berriarekin bat datorren teknologiak gehituz.
- Bulego judizialen funtzionamendua arintzea eta bateratzea.
- Ebazpen Judizialak prestatzea eta arrazoitzea erraztea.

Helburu horiek lortzeko informazio-sistemen funtzionaltasunak hobetu, Justizia Administrazioan operazio eta erlazio berriak gauzatu, eta, aldi berean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) arautzen duen Justizia Administrazioaren zerbitzupeko aplikazio informatikoen Bateragarritasun Proba<sup>(3)</sup> gainditu behar izan da, azken batean baldintza funtzional eta teknologiko berriak

moldatzeko beharra dakarrena, **JustiziaBat** edo **JBat** deituriko prozesu-kudeaketaren sistema berria garatuz.

“JustiziaBat lehenagoko EJ aplikazioarekin batera erabiltzen da; horrek eguneroko lanean eragotzi gabe aplikazioa ezartzen uzten du”.

#### JUSTIZIABAT. INGURUNE BERRIA

JustiziaBat Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioak herritar guztiei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko ahalmen operatibo ezin hobea lortzeko egindako ahaleginen emaitza da.




Teknologikoki aurreratua den **prozesu-kudeaketaren eta -izapidearen** aplikazioa da, plataforma moderno batean garatuta dagoena eta bere funtzionamenduan teknika berrienak dituena.

Informazio judizialaren datu-base zentrolean oinarrituta dagoen **aplikazio integrala** da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu guztiak barne hartuko ditu.

Prozesu-kudeaketaren sistema horren azterketa, garapen eta bilakaera etengabe, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin batera, Justizia Administrazioan esku hartzen duten agente ezberdinak ari dira elkarlanean: Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Sala, magistratuak, fiskalak, idazkari judizialak, sindikatuak, abokatuak, prokuradoreak eta Justizia Administrazioaren egungo beharrianei erantzuna ematen dien produktua lortzeko ahalegin handiak egin dituzten informazio-teknologiaren beste hainbat profesional.

Azken batean, JustiziaBat etengabe bilakatzen ari den produktu bizia da eta **lege-erreformatara**, prozesu judizialek eskatzen dituzten **antolamendu-aldaketetara** eta **teknologia-joera** berrietara egokitu behar da.



JustiziaBat **web-aplikazioa** da, eta **J2EE**ren zehaztapenetan oinarritzen den plataforma teknologikoa du euskarri, maila askotako teknikak erabiliz. **Objektuetara dago bideratuta** eta dokumentu elektronikoak, argazkiak, ikustaldien grabazioak eta abar bezalako multimedia-elementuak eransteko aukera ematen du. Urruneko sarbideetarako behar diren segurtasun-mekanismoak ditu; autentifikazio eta ziurtapen elektronikoak.

Hori diseinatzeko sistema-eredu bat hartzen da oinarri; eredu horrek justizia-arloko organo guztiak hartzen ditu kontuan, baita **datu-base komun** baten organo horiei zerbitzua eskaintzen dieten aplikazio eta moduluak ere. Hori guztia


segurtasuna eta horietara guztietara sartzeko aukera ematen duten kontzeptu bertikalen bidez babestuta dago.

JustiziaBatek bere diseinuan hobekuntzak eta kontzeptuak aplikatuz arlo ezberdinetan hainbat onura ematen ditu; horrek erreferentziako prozesu-kudeaketaren sistema izatea dakar.

## ONURAK

JBat irtenbide berriak ematen dituen **onura funtzionalak**, laburbilduz, honakoak dira: **aplikazio integrala** da (kolektibo judizial osoaren beharrianei erantzuten dielako, baita justizia-arloarekin erlazionaturiko kolektibo eta instituzioenak ere), **kanpokoekin komunikatzeko** aukera ematen du (sistemak, informazio-trukaketan, kanpoko erakunde eta kolektiboekin lankidetzat bermatzen du), **homogeneizazioa** errazten du (zerbitzua eskaintzen dien justizia-arloko organoei aplikatzen zaizkien prozesuetan gehieneko uniformetasuna duelako, betiere organo bakoitzaren berezitasunak errespetatuz), **interfaze originala eta modernoa** du (argi identifikatzeko irudia eta sistema osoan nabigagarritasun erraza eta homogeneoa duen interfaze lagunkoia erakusten duelako) eta **erlazioa** errazten du (bulego bateko erabiltzaileek beste organo bati dagokion espedientearekin lan egin dezaketelako, epaitegiko espedienteak dituzten Fiskaltzen kasuan bezala).

**Onura teknologikoen** artean, azpimarra genezake **informazioa sartuta dagoela**, hau da, zerbitzu guztiak barne hartzen dituen datuak kudeatzeko sistema bakar batean dago bilduta; duen **segurtasuna** aipatzekoa da (sistemak beharrezko segurtasun-mekanismoak ditu informazioaren osotasunari eta babesari eta informaziora sartzeko kontrolari dagokionez, indarreko DBLOK edo Datuak Babesteko Lege Organikoa betez), **elkarreraginkortasuna** (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Justizia Ministerioa eta bestelako Autonomia Erkidegoak, Polizia Judiziala eta Espetxeak, Administrazio Erregistroak eta Erregistro Zentralak, Institutioak edo kolektibo laguntzaileak –abokatuak, prokuradoreak, erregistratzaileak, notarioak...– eta/edo Estatuko Fiskaltza Nagusia bezalako erakunde eta kolektiboekin datuak eta informazioa trukatzeko gaitasun teknologikoa eskaintzen duelako). Halaber, **datuen kalitatea** alderdi



## HIZTEGIA


**(3) Bateragarritasun proba:** 1999an Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak zehaztutako zehaztapen teknikoaren multzoa. Hori helburua kudeaketa judizialaren aplikazioak garatu behar diren marko teknologikoa ezartzea da, epaitegietan mugitzen den informazioaren **tratamendua** **bateratzeko** eta organo judizialen arteko espediente-trukea ("ibilbideak") errazteko, eta informazioaren segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurrietara egokitzea bultzatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, JustiziaBat 2. mailan dago sailkatuta (maila hori da altuena).

[www.poderjudicial.es](http://www.poderjudicial.es)

### Bestelako sistemak:

Autonomia Erkidegoaren arteko Justizia eskumenen deszentralizazioa dela eta kudeaketa-sistema ezberdinak daude egun: Adriano, Atlante, Themis, Libra, Minerva, Avantius, Cicerone eta JustiziaBat.



### Erreferentziako datuak

Jarraian, erreferentzia gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan Justizia Administrazioarekin lotutako langile-kopurua agertzen da:

- Epaille-postuak: 210
- Fiskalak: 80
- Idazkari judizialak: 170
- Bake-epaileak: 240
- Gainerako justizia-langileak: 2.200
- Abokatuak: 7.000
- Prokuradoreak: 350
- Espetxeratutako herritarrak: 1.200
- Urtean ebatzitako arazoak: 260.000

garrantzitsua da (izan ere, sistema hori informazioaren eta multimedia-objektuen datu-base zentrolean dago oinarrituta, arreta berezia eskainiz sakontasunari, koherentziari, fidagarritasunari eta arauak betetzeari), **paperik gabeko bulegoa** kontzeptua errazten du (kontzeptu horren bidez ulertzen da euskarri informatikoei jasotako zein igorritako agirien informazio nahikoa izan behar dutela, hots, agiri telematikoak, eskaneatuak, e-mailak, etab.), bulego judiziala osatzen duten unitateen artean espediente fisikoen joan-etorria ahalik eta gehien gutxitzeko. Azkenik, eskaintzen duen **moldagarritasuna eta eskalagarritasuna** garrantzitsua da (sistema lege-, antolaketa- edo hardwarearen topologian aldaketak daudenean sisteman aplikatu behar diren aldaketak bere parametro zehatzak aldatuta konpon daitezzen diseinatuta dagoelako).

JBatek **gizarte-arloan** ematen dituen onurei dagokionez, bi alderdi aipatu behar dira:

- **Sistema elebiduna:** Erabiltzaileak hizkuntza aukeratu dezake, dokumentuak igortzerakoan zein bere lanpostuko interfazean. Bi hizkuntza ofizialeko batean aurkezten diren agiriak, edo bulego judizialean euskaraz idatzitakoak edo barruan itzultitakoak erregistratu daitezke hizkuntza adieraziz eta balizko itzulpenekin erlazionatuz.

**“Prozesu-kudeaketarako sistema guztiek Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ezarritako Bateragarritasun Proba gainditu behar dute”.**


- **Justizia arintzea:** Sistema herritarren onurarako Justizia arindu ahal izateko sortu da, erabiltzaileen eskura jarritako tresna (eta ez alderantziz) izanik.

### HOBKUNTZA NABARIAK

Jarraian, labor-labor, JustiziaBatek funtzionarioari eguneroko lanean ematen dizkion hobekuntza nagusiak azaltzen dira:

Espedientea izapidetzea guztiz **gidatua** da; izan ere, prozesu-kudeaketa izapidetza burutzeko gai

den moduluan oinarritzen da. Izapide horiek prozeduraren puntu jakin batean “karpeta” batean burutu beharreko ekintzak zehaztuko dituzte, erabiltzaileari ondorengo eta burutu gabeko izapide posiblea/k adieraziz.



Prozedurak, zati bereziak eta gai berari buruzko espedienteak identifikatzeko **“Karpeta”** kontzeptua gehitu da. Horrek gai berari buruzko karpeta ezberdinak batera eta hierarkia batez ikusteko aukera emango du.

**“Lan-taldeak”** kontzeptua erabiltzen da; kontzeptu hori bulego bat osatzen duten pertsonen azpimultzoa da. Pertsonak taldetan izendatzeak funtzionarioen aldi baterako ordezkapenak edo mugikortasunak lanaren antolaketan ez eragitea ekarriko du. Lan-talde horien eginkizun nagusia arduradunak antolatzeko tresna erabilgarria izatea da, justizia-organoaren, Fiskaltzaren edo prozesu-zerbitzu komunaren gaiak esleitzeko aukera emanez.

Azpimarratzeko moduko beste alderdi bat bulego judizial edo zerbitzu komun bateko idazkari judizialari ematen zaion aukera da; aukera horren bidez idazkariak bere eskumenekoak diren **gai buruzko informazioa** eskatu ahal izango du. Sistemak gaien izapidetzearen egoerari buruzko informazioa aztertuko du abisu-egoerak eta jarraipen-estatistikak antzemateko xedez. Informazio horrek funtzionarioei lehenetsun handiagoa duten lanak egin edo lana birbanatzeko agindu egokiak emateko aukera emango dio bulegoko arduradunari.

Sistema berriak, gainera, puntako teknologien erabilera, **izenpe elektronikoa** (Izenpe autoritate ziurtagiri-emailearekin Izenpe Elektroniko Onartuaren mekanismoez hornitua dago) eta **barra-kodeen** erabilera gehitu du (karpetei eta



dokumentuei lotutako kode-barren irakurketaren bidez espedienteak identifikatzeko gai dena).

Baloratzen den beste erabilera bat “**Agenda**” da; horrek egintza prozesalen kudeaketaren eta planifikazioaren eragile bezala jarduten du. Gidatutako izapidetzaeren ohar automatikoen eta bestelako esku-oharren bidez, agendak izapidetzaeren burutzapenak, ikustaldiak adieraztea, beste bulego batzuetako eskaerak eta abar bezalako egintza prozesal garrantzitsuen inguruko informazioa ematen die erabiltzaileei.


Azkenik, JBatek informazioaren “**Ibilbidea**” errazten du (hau da, bulego judizialen artean informazioa bidaltzea, sistemaren barruan nahiz

JustiziaBat aplikazioz eramateko xedez; prozesu horren bidez **datuen kalitate** hobea lortzen da.

“Zerbitzu Komunaren” eta jurisdikzioaren bidez jartzen da abian Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren agertokiko agindu



Fecha	Fase	Tramite	Estado	F. estado	Usuario	Unidad	Grupo
05/06/2007	Inicio	Registro de asunto		05/06/2007	campes	SCOP	Inicio
15/06/2007	Inicio	No presenta defectos formales, traslado a UPAD		05/06/2007	campes	SCOP	Inicio
15/06/2007	Inicio	Admisión a trámite Procl. Ordinario (Interpuesto por escrito)		05/06/2007	campes	UPAD	Inicio
15/06/2007	Inicio	Reclamación expediente administrativo		05/06/2007	campes	SCOP	Inicio



## HIZTEGIA

### (4) Deltu:

Erabiltzailearen Arretarako zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzak bere langile funtzionarioentzako duen CAU Zerbitzuen baliokidea da; erabiltzailearen arretarako zerbitzua erabiltzaileak eguneroko lanean sistema informatikoarekin lotuta izan dezakeen edozein arazo gertatuz gero euskarri informatikoaz arduratzen da.

Identifikatzailea	Iturri	Deskribuzioa	Notifikazioa	Abisua	Deskribuzioa	Fecha Berritu
PAH 324/02	Allegaciones	Argudio Deklarazio de Censura	Procesuaren hasierako	Procesuaren hasierako	12-02-02	
46.04.2-00000337	Argudio Deklarazio de Censura	Argudio Deklarazio de Censura	Procesuaren hasierako	Procesuaren hasierako	12-02-02	
PAH 324/02	Calificación del M. Fiscal	Calificación del M. Fiscal	Procesuaren hasierako	Procesuaren hasierako	12-02-02	
46.04.2-02000047	Acta Juicio	Sententzia	Procesuaren hasierako	Procesuaren hasierako	12-02-02	
PAH 234/02	Argudio de Barmatzea	Argudio de Barmatzea	Procesuaren hasierako	Procesuaren hasierako	14-11-02	
PAH 234/02	Acta Proceso PAH 234/02	Acta Proceso PAH 234/02	Procesuaren hasierako	Procesuaren hasierako	14-11-02	
PAH 237/02	Reclamatorio de Sanfamentu a juicio	Reclamatorio de Sanfamentu a juicio	Procesuaren hasierako	Procesuaren hasierako	14-11-02	

beste sistema batzuetara edo beste sistema batzuetatik). Nahiz eta beste bulego batek egintzak burutzeko espediente judizialak, dokumentuak edo eskariak izan.

## EZARTZEA ETA ZABALTZEA

Egun, JustiziaBat lehenagoko EJ aplikazioarekin batera erabiltzen da datuak trukatzeko; horrek, aplikazioa pixkanaka eta hartzailearen eguneroko lanean eragotzi gabe ezartzen eta zabaltzen uzten du. Hartzailea Justizia Administrazioarekin lotutako funtzionario-taldea da.

Ezartzea aplikazioa onartzeko prozesu baten bidez hasten da. Prozesu hori eta aplikazioaren arazketa **proba-talde** batek eta **baliokotze-talde** funtzional batek burutzen du. Bi izapide horiek gauzatuta, **azken erabiltzailearen** baliokotzeak osatzen du aplikazioaren onarpena.

Aplikazioa ezartzeko, dauden datuen berrikuspena eta arazketa egiten da horiek

eta estamentu guztiak bete arte. Egun Zerbitzu Komunak ezarri eta zabaldu dira: Erregistro eta Banaketako Zerbitzu Komuna, Idazkiak Jasotzeko Zerbitzu Komuna, Komunikazio Ekintzen eta Bahituren Zerbitzu Komuna, Agiritegi eta Dekanotzen Zerbitzu Komuna. Bulego Judizialetan ere aurreratzen ari dira.

## ALDAKETAREN KUDEAKETA


Horrenbestez, aldaketaren kudeaketan ahalegin berezia egiten ari dira. Beharrezkoa da aldaketaren aurrean dagoen erresistentzia kudeatzea, batez ere martxan jarri behar diren prozesu eta sistema berriak ondo ezagutzen ez dituzten kolektiboetan. Horretarako erabiltzaileei **prestakuntza-zikloak** egin eta **laguntza in situ** ematen zaie. Halaber, kalitatezko telefono bidezko arreta-sistema erabiltzaileen eskura dago. DEITU<sup>(4)</sup> izena du eta erabiltzaileen eskaera eta zalantza guztiei erantzuteko da.



## Dokumentu elektronikoak



Idazkera existitzen denetik, epe luzera ondorioak izan behar zituzten gertaerak jasota uzteko erabili izan da. Hala ere, historian zehar euskarri-motak bilakaera izan du, eta jada sortuta dauden dokumentu elektronikoak mantentzeko beharra planteatzen da orain, beraz, epe luzera artatzeko aukera ematen duten teknikak bilatu beharra dago.



### HIZTEGIA

<sup>(5)</sup> **PDF**: *Portable Document Format* ("dokumentu garraigarrien formatua").

Dokumentuak deskribatzeko erabiltzen den datu-formatua da. Adobek, PDFa garatu zuen enpresak, PDF formatuan fitxategiak sortu, editatu eta ikusteko gai diren programak merkaturatzen ditu.

Jende askok PDF (datu-formatua) Acrobatekin (Adobe enpresak saltzen duen programa) nahasten dute. Nahaste hori ia PDF zehaztapen bertsio berri guztiak Acrobat bertsio berriarekin batera doazelako sortzen da. Adibide gisa, PDF zehaztapenen 1.2 bertsioa Acrobat 3-rekin eta PDFren 1.3 zehaztapena Acrobat 4-rekin batera azaltzen da.

**E**gun, administrazio batean erabiltzen den informazioaren zati handia (barrukoa zein kanpoko) dokumentu elektronikoetan dago jasota. [ikus 1. Taula]. Hala ere, prozedura horiek bideratzen dituzten hainbat lege eta arau papereko dokumentuak zeuden ingururako sortu ziren. Lege eta arau horien adibide batzuk Administrazio Prozedurari buruzko Legea edo Ondare Historikoaren Babesari buruzko Legea dira.

Horrek berrikusi behar diren indarreko legeriaren hainbat alderdi egotea dakar, esate baterako, dokumentu batzuk "betiko agiritegian gordetzea", udal-aktak, etab.

### DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK

Gaur egun, erabiltzen ditugun dokumentuei dagokienez aldaketa oso garrantzitsua eragin duen aldaketa teknologikoa dugu. Dokumentuak ez dira gehienbat paperean agertzen, dokumentu elektroniko bihurtu dira eta. Dokumentuek 2 faktore behar dituzte eskuragarriak izateko: formatua eta euskarria.

Paperean, pergamuan edo papiroan dokumentu

tradizionalaren analogia eginez, dokumentu bat irakurri ahal izateko euskarria izan eta dokumentua idatzi zen hizkuntza ulertu behar dugu. Dokumentuaren formatu hori (hizkuntza), dokumentua sortzeko erabili zen aplikazio informatikoaren mende egon da orain arte.

Dokumentuak sortzeko erabilitako aplikazioak (testu-prozesatzaileak, kalkulu-orriak,

"Dokumentuak sortzeko erabiltzen diren aplikazioak sarri aldatzen direnez, egun erabili ezin daitezkeen sortutako hainbat dokumentu daude."


aurkezpenak, etab.) eta aplikazioak sortzen dituzten sistema eragileak edo konpainiak sarri aldatzen direnez, pasatako garai batean tresna oso arrunten bidez sortutako zenbait dokumentu daude, baina egun erabili ezin daitezkeenak. Horren adibide duela 10 urte erabiltzen ziren

### 1. taula: PDF<sup>(5)</sup>en presentzia Administrazioetan

Erakundea	Web orria	.pdf	.doc	.rtf
Bartzelonako Udala	www.bcn.es	79.700	856	20
Madrilgo Udala	www.munimadrid.es	76.900	248	10
Aragoi	www.aragob.es	35.400	164	7
Kanariak	www.gobcan.es	466.000	9.570	22
Gaztela-Mantxa	www.jccm.es	124.000	19.200	12
Gaztela-Leon	www.jcyl.es	51.600	138	21
Madrilgo Erkidegoa	www.madrid.org	115.000	969	16
Generalitatea	www.gencat.net	208.000	21.000	38
Eusko Jauriaritza	www.euskadi.net	325.000	624	20
Andaluziako Junta	www.juntadeandalucia.es	164.000	10.200	540
Asturiasko Printzerria	www.princast.es	49.000	224	43
Galiziako Xunta	www.xunta.es	92.100	679	17
<b>Guztira</b>		<b>1.786.700</b>	<b>63.872</b>	<b>766</b>

testu-prozesatzaileak izan daitezke, egun merkatuan oso gutxi ageri dira.

Horrek 1985ean sortutako dokumentu elektronikoa erabiltzea K.a. XII. mendeko oholtxo bat erabiltzea baino zailagoa izatea eragiten du.



## ISO 19005-1

Egoera horren aurrean, epe luzera dokumentu elektronikoa artatzea bermatzen duen formatua izateko beharra antzeman zen. Lehenago ISOK PDFren zehaztapen bat oinarri hartzen zuten hainbat formatu estandarizatu zituen, PDF/Xen kasuan bezala.

Epe luzera mantentzeko dokumentu-formatua ISOren 46 Batzorde Teknikoak (TC46) 2005eko irailean onetsi zuen ISO 19005-1 izena jarrita. Formatu hori PDF/A bezala ere ezagutzen da, PDF formatuaren azpimultzoan oinarritzen delako.

Ildo horretatik jarraituz, epe luzera dokumentu elektronikoa gordetzeko estandar bat sortzeko beharra horretarako erabil daitezkeen formatu ugari egotearen ondorio da. Hortaz, beharrezkoa da biltegiatze-sistemen elkarrenginkortasuna bermatzen duen estandar bakar bat zehaztea.

Formatu horien artean TIFF, PDF formatua, Adobek argitaratzen duen moduan, XML eta beste batzuk har ditzakegu hautagaitzat.

## PDF vs PDF/A

Hasiera batean, PDF dokumentu elektronikoa epe luzera gordetzeko estandarra bihurtzeko hautagai egokia dela irudi dakiguke. Alabaina, formatu bezala PDFren gaitasunetako batzuek sortutako dokumentuetan etorkizunean sartzeari zaila izatea eragin dezakete. Adibide gisa honako eragozpenak aipa ditzakegu:


- PDF dokumentuek pasahitzak izan ditzakete, eta horrek dokumentua ezagutzen ez duenari dokumentua zabaltzea eragotziko dio.
- PDF agiriekin eranskinak izan ditzakete, eta horiek edozein motatako artxiboak izan daitezke.
- PDF dokumentuek ez dute nahitaz beren edukirik izan behar. Sistemaren letra-tipoen mendekoak diren edo dokumentuan dauden esteken bidez sartzeko moduko edukiak dituzten mendekoak egon daitezke.
- Merkatuan PDF dokumentuak sortzeko hainbat tresna daude, eta tresna horiek beti ez dituzte ezin hobeto betetzen zehaztapenak.

**“Dokumentu bat irakurri ahal izateko dokumentuaren euskarria izan eta dokumentua idazteko erabili zen hizkuntza ulertu behar dugu.”**

Azken batean, beharrezkoa da PDF formatu estandarren zehaztapena izatea, aurrerago dokumentura sartu ahal izatea bermatzen duena; beraz, dokumentuak trinko eta aurrez jakiteko moduan ikusi behar izango dira, nahiz eta denbora asko pasa zein aldaketa teknologiko handiak egin.

PDF/A ISOK argitaratutako estandar internazionala da, eta dokumentu elektronikoa epe luzera gordetzeko formatu egokia zehazten du. Mundu guztiko hainbat gobernu, erakunde eta konpainiaren parte hartzearekin garatu da; beraz, erkidearen zati handi baten babesa du.

Hala ere, badaude dokumentu elektronikoa artatzearekin lotuta dauden alderdiak, PDF/A estandarrek barne hartzen ez dituenak. Alderdi horien artean, dokumentua, sistema eragilea, biltegiatze-baldintzak, beharrezko ekipo informatikoa etab. gordetuko dituen euskarri fisikoa nabarmendu dezakegu.



## PDF motak

PDF “de facto” estandarra bihurtu da informazioa trukatzeko orduan, Adobek 1993an PDF zehaztapen osoa argitaratu zuenetik. 1995etik Adobek ISOren zehaztapen teknikoan garapenean lagundu du sektore eta eginkizun zehaztarako estandar gisa espezializatutako PDF azpimultzoak sortzeko. Egun, PDF artxibo-formatua (PDF/A) eta PDF trukatzeko-formatua (PDF/X) ISOren estandarrek dira, eta ingeniarietarako (PDF/E), osasungintzarako (PDF/H) eta Sarbide Unibertsalerako (PDF/UA) PDFak estandarren proposamenak dira. **Aiim**ren ardura da PDF/A, PDF/X, PDF/E, PDF/H eta PDF/UA kudeatzea.



PDF/Aren bukaerako helburua denbora pasatu ahala dokumentu elektronikoen bistako itxura



### PDF/A-1ek onartzen al ditu sinadura digitalak?

*Bai. PDF/A-1ek PDFan txertatutako sinadura digitalak erabiltzeko aukera ematen du, PDF formatuaren erreferentzia-dokumentuetan zehazten denaren arabera. PDF batean agertzen diren sinadura digitaletz bista itxura dute, PDF/A-1k adierazitako betekizunetara egokitu behar dena; horrek gailuekiko independenteak diren letra-tipoa eta kolorearen erabilera txertatzea gehitzen du. Sinadura digitalerako tresna komertzial guztiek ez dituzte betekizun horiek betetzen.*

estatikoa zaintzea da, aurrerago horietan sartzeko eta beste formatu batzuetara aldatzeko, hau ere aurrerago, aukera emanez; horretarako honakoentzako arauak ematen ditu:

- Dokumentu elektronikoetan metadatuak sartzea.
- Egitura logikoa eta dokumentu elektronikoen ezaugarri semantikoak zehaztea.

Emitza PDF formatuaren 1.4 mailan oinarritutako fitxategi-formatua da; emitza hori egokiagoa da epe luzera artatzeko. Ildo horretatik, PDF/A-1 agiriak "deskribapen" hobea dute, beharrezko eduki osoa daukate eta erreproduzitzeko gailuekiko independenteagoak dira PDF 1.4 baino.

## PDF/A FORMATUA

Azaletik aztertuta 3 talde handitan sailka ditzakegu PDF/A formatuaren eta Adobek argitaratutako PDF formatuaren zehaztapen publikoaren arteko ezberdintasunak:

1.- **Nahitaezko ezaugarriak** dira etorkizunean dokumentua erabili ahal izatea bermatzeko beharrezkoak direnak. Ezaugarri horiek dokumentua edozein gailutan modu fidagarrian azalduko dela bermatzen dute. Ezaugarri horietako batzuk letra-tipoak txertatzea, oharrak

### OINARRIZKO BETEKIZUNAK

Epe luzerako dokumentu elektronikoen artxibo-formatuak oinarritzko betekizunak bete behar ditu:

- ✓ Gailuarekiko **formatu independentea** izan behar da, orain edo aurrerago edozein erabiltzaile bertara sartu ahal izateko modukoa. Formatua sistema eragilearen, ikusteko gailuaren bereizmenaren edo bilakaera ez dakigun beste edozein parametroren mendekoa izatea ez litzateke onargarria izango.
- ✓ **Bere edukia duen** formatua izan behar da, dokumentuaren edukia agertzeko beharrezko informazio guztia dokumentuan bertan agertzen duena, eta etorkizunean beharbada eskuragarri egongo ez diren kanpoko edukietara sartzeko beharrezkoa ez dena. Letra-tipoak dira puntu horren adibide arrunta. Dokumentua erakusteko sistemako letra-tipoak erabiltzen baldin baditugu, ezin dezakegu bermatu etorkizunean dokumentu hori modu fidagarrian azaltzea, ezin baitezakegu ziurtatu letra-tipo hori eskuragarria izatea. Beraz, ezin daitezke erabili

dokumentuan txertatu ezin diren letra-tipoak, adibidez, erabiltzeko eskubiderik ez dauzkagunak.

- ✓ Dokumentuak **bere informazioa** izan behar du, hau da, dokumentua kokatzeko, katalogatzeko, etab. beharrezkoa den informazio guztia dokumentuak izan behar du, eta ez kanpoko baliabideetan gordeta.
- ✓ Ezin dira baliatu dokumentuaren edukia aldatzen duten egintzak, izan ere, PDF/An eduki guztiak estatikoak dira. Mota horretako adibidea sistemaren data duen eremua izan daiteke.
- ✓ Formatuak **segurtasunerako** murrizketak eragotzi behar ditu, edukia bertara sartu ahal izateko moduan egon dadin inolako segurtasunik gabe. Babestuta egoteak, pasahitzak jartzea esaterako, informazioa ikusi ahal izatea baldintzatzen du.
- ✓ Formatua **irekia** izan behar da (edo argitaratua egon). Formatua zuzentzen duten zehaztapenak publikoak eta ezagunak izan behar dira.
- ✓ Erkideak **onartzen** duen formatua izan behar da, horrela erkidea formatura azkar moldatzea bermatuko da.



identifikatzea edo dokumentuaren bistako itxura babestea daude.

2.- Formatuan **debe**katuta daude etorkizunean dokumentuan sartzea arriskuan jar dezaketan ezaugarri guztiak. Ezaugarri horietako batzuk dokumentuaren zifratua eta zaintza, txertatutako objektu dinamikoak (sistema eragileari oso estuki lotuta duten erreproduktzioa), txertatu ezin daitezkeen letra-tipoak, edo kanpoko estekak (etorkizunean eskuragarri ez izatea gerta daiteke).

**"PDF/A estandarraren egungo bertsioa Adobek argitaratzen duen PDF formatuaren 1.4 zehaztapenean dago oinarrituta."**

3.- Estandarrean **gomendio** bezala ageri diren ezaugarrietako batzuk, esaterako, dokumentuan dagoen informazioa identifikatzeko metadatuak erabilera da. Metadatuak erabiliz gero, XMP formatuan egituratu behar dira.

Laburki esanda, PDF formatuaren eta PDF/A estandarraren arteko oinarritzko ezberdintasunetako bat PDF/Ak PDFri jartzen dizkion mugak dira. Ildo horretatik, PDF/A-1 agiriak honakoak izan behar dituzte: txertatutako letra-tipoak, kolorea independenteki erreproduzitzea eta XMP Metadatuak.

Aitzitik, PDF/A-1 dokumentuek ez dituzte honakoak izan behar: enkriptatzea, LZW Konpresioa, txertatutako fitxategiak, kanpoko edukietara erreferentziak, PDF gardentasuna, Multimedia eta Javascript kodea.

Dokumentuak betetzen dituen ezaugarrien arabera, estandarrekin bi betetze-maila ezartzen dira: **1a** eta **1b**.

**1b Mailak**, baxuena denak, ikusiz dokumentua egileak sortutakoaren berdin-berdina dela bermatzen du. Maila honetan edukiek etiketarik ez izatea eman daiteke.

**1a Mailak**, altuenak, 1b Mailako ezaugarri guztiak barne hartzen ditu eta gainera dokumentuak etiketa izatea eskatzen du; horrek, egiturari buruz informazio asko gehitzen uzten du. Horrek, adibidez, irakurleak dokumentua zein hurrenkeratan irakurri eta begiztatu behar den

jakiten uzten du. Horrela, irakurle automatikoak zutabeak bertikalki irakur ditzake, horizontalean irakurri ordez.

## ETORKIZUNeko BILAKAERA

Lehenago aipatu bezala, PDF/A estandarraren egungo bertsioa Adobek argitaratutako PDF formatuaren 1.4 zehaztapenean dago oinarrituta, eta PDF formatuaren bertsio berriena 1.7 da (Acrobat 8-rekin batera argitaratu zen). Egun ISO 19005 estandarraren 2. luzapena lantzen ari dira, 1.6 zehaztapenean oinarrituko da eta honakoak bezalako ezaugarri garrantzitsu batzuk ditu:


- Irudia JPEG2000 formatuan konpresatzeko euskarria
- Sinadura digitalerako euskarri hobea
- OpenType letra-tipoentzako euskarria
- 3D Grafikoak
- Audio- eta bideo-edukia
- PDF/X, PDF/E edo PDF/UA bezalako beste formatu estandarrekiko trinkotasuna

Estandarraren bertsio berri hori 19005-2 izango da, hau da, egungo 19005-1-en luzapena izango da. Ondoren, 19005-3 formatuaren sorrerarekin aurrera egingo da.

2007ko urtarrilean, 19005-02 formaturako



ISOren lanarekin batera, Adobek AIIMri PDF formatua lagatzea erabaki zuen ISO estandarra bihurtzeko. Une honetan, ISO PDFren 1.7 zehaztapenean ari da lanean eta PDF ISO estandarra bihurtzea hausnartzen.



### **Zein erakundek onartuko dute PDF/A?**

*Mundu guztiko hainbat erakunde beren dokumentuetarako PDF/A formatua erabiltzeko dituen onurak ebaluatzen ari dira jada. Horien guztien artean Estatu Batuetako Artxibo eta Erregistroen Administrazio Nazionala (US National Archives and Records Administration) eta Suediako Artxibo Nazionalak nabarmentzen dira.*

*Halaber, jarraian aipatzen diren fabrikatzaileetako batzuek adierazi dute beren produktuek PDF/A-1 onartzen dutela:*

Adobe [www.adobe.com](http://www.adobe.com)  
 Apago [www.apagoinc.com](http://www.apagoinc.com)  
 Visioneer [www.visioneer.com](http://www.visioneer.com)  
 Callas [www.callassoftware.com](http://www.callassoftware.com)  
 Compart Systemhaus [www.compart.net](http://www.compart.net)  
 PDF Tools AG [www.pdf-tools.com](http://www.pdf-tools.com)



## ALBOAN:

### KZgunea eta IT-Txartelak



**I**T-Txartela Informazio Teknologien oinarrizko Gaitasunen Ziurtagiri Sistema da, eta pertsona batek tresna informatikoen eta Interneten erabileraren inguruan dituen ezagutzak ziurtatzen ditu (eskakizun ezberdinen arabera).

Hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiak dira, informazioaren gizartea delakoan hobeto moldatzeko ezagutzak ziurtatu nahi dituztenak.

IT Txartela, "Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial"-ek (SPRI) 2002an martxan jarritakoa, "Euskadi Informazio Gizartean" planaren barruan dago, eta ziurtatzen duen erakunde den European Software Institute-en (ESI) laguntza du. Ziurtagiri hori lortzearen bidez IKT Teknologia Berrien arloan herritarrek motibatuzko helburua du. Beste alde batetik, ziurtagiri horiek enpresei hauen parte diren pertsonen IKTen gaitasunen ebaluazio objektiborako tresna izatea ahalbidetzen die, baita erakundeetan hartzea aurreikusten dutenen gaitasunak ebaluatzeko ere.

Softwarearen Europako Institutua (ESI), 1993. urtean sortu zena, azterketak egiten diren zentroak homologatzeko erakunde arduraduna da; zentro horien artean KZgune guztiak eta bestelako prestakuntzarako ikastetxeak daude. Ezagutza informatikoak ziurtatzeko hainbat modulu daude oinarrizko eta goi-mailako Internet, sistema eragileak, eta ofimatika-arloan banatuta. Horien artean, Microsoften produktu ohikoenak eta Linux edo Open Office bezalako kode irekiko aplikazioak daude. Lortutako ziurtagiriek ez dute iraungipenik.

#### AITZINDARIAK

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (HAAE), erakunde publikoetako giza-baliabideen aukeraketaz eta prestakuntzaz

arduratzen den erakunde izan zen erabiltzaileen ezagutzak ziurtatzeko IT-Txartela erreferente bezala erabili zuen lehenengoa. Adibide moduan, lehenengo deialdian, 2.000 pertsona baino gehiago administrari laguntzaileen plazetara aurkeztu ziren, eta deialdian egin zeneko ziurtagiri hori bazutenez, ofimatika-probak egiteki aske utzi zituen.

Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak IT Txartelaren ziurtagiria aplikatu zuen ofimatika-ezagutzak neurtzeko 200 pertsonak parte hartu zuten deialdi batean.

#### ZENBATEKO BATZUK

Euskal Autonomia Erkidegoan IT Txartela eskuratzeko 150.000 proba baino gehiago egin dira martxan jarri zenetik, orain duela bost urtetik. Abian jarri zenetik 78.877 ziurtagiri eman dira, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan ia 20.000 pertsonak dute beren ezagutzak egiaztatze txartel hori.

2006 eta 2007 urteen artean jauzi kualitatiboa eman da; izan ere, gero eta enpresa eta instituzio gehiagok erabiltzen dute ziurtagiri hori ezagutza informatikoen baremo gisa, eta, hala, probak "in situ" egitea saihesteko, esaterako, Lan Eskaintza Publikoan (LEP), proba horiek egiteko azpiegituretan aurreztuz. Adibidez, 2006an 74.000 proba baino gehiago egin ziren.

Ziurtagiri ugari horien arrazoa burutu diren lan-eskaintzen hainbat deialdi publiko izan dira. Hala, 2006 eta 2007 arteko Osakidetzako oposaketek ziurtagiriaren eskaera izugarri handitu zuten; oposaketa horietan IT Txartelarekin lortutako ziurtagiriak puntuak ematen zituen, derrigorrezko 19 ziurtapen-modularekin. Halaber, Bizakiko Foru Aldundiak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak edo Hernaniko Udalak mota horretako ziurtagiriak izatea puntuak emateko

"Osakidetzako 2006ko oposaketek Ziurtagiriaren eskaera izugarri handitu zuten."



kontuan hartu dute. Aurten, Vitoria-Gasteizko Udalak administrari laguntzaileentzako lan-eskaintza publikoan puntuak ematen ditu, baita Pasaia, Deba edo Oiartzungo Udalek ere, besteak beste.

IT Txartela lortzeko, **doako test moduko galderen** azterketa gainditu behar da. Modulu bakoitza

gainditzen duten ikasleek ziurtagiria (diploma) jasotzen dute beren etxeetan. Baldintza bakarra Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea eta 16 urtetik gora izatea da. Horretarako, edozein KZgunetara, akademia homologatuetara edo LHko ikastetxeetara jo daiteke. Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira, **255 zentro akreditatu** daude. 2007-2010 denboraldian sare publikoko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko 140 ikastetxe probak egiteko zentro akreditatu gisa programari atxikiko dira.



### KZgunea: IT Txartela ziurtagiriaren datuak

	Egindako azterketak	Aurkeztutakoak	Gutxienez ziurtagiri bat dutenak
2002	1.777	1.136	708
2003	3.076	1.513	1.108
2004	1.952	883	684
2005	6.202	2.191	1.637
2006	61.111	12.059	9.080
2007 *	63.294	6.667	6.121
<b>GUZTIRA</b>	<b>137.412</b>	<b>24.449</b>	<b>19.338</b>

\*2007/11/31ra arte

KZgunea sareak programa honi lagundu dio, edozein ziurtagiri-proba burutzeko telezentroen azpiegitura programaren eskura jarri.

KZgunea sarearen kasuan, ezagutza informatikoen 135.000 azterketa baino gehiago egin ditu, eta 24.000 pertsona baino gehiago aurkeztu dira. Pertsona horien artean lautik hiruk IT Txartelaren gaitasun informatikoren bat izatea lortu dute. Hala ere, edozein modulu gainditzeko zailtasuna agerian jartzen da azterketen **%45,30a** bakarrik **gainditzen** dela frogatzen denean.

"Euskal Autonomia Erkidegoa ziurtatzeko txartelaren garapenean aitzindaria izan da."



### IT TXARTELA ziurtagiri-motak

- Ofimatika 97, XP oinarritzko maila
- Internet (oinarritzko maila eta maila aurreratua)
- Windows 95, 98, XP
- Office XP
- Word 97 (oinarritzko maila eta maila aurreratua), Word 2000, Word XP (oinarritzko maila eta maila aurreratua)
- Excel 97 (oinarritzko maila eta maila aurreratua), Excel 2000, Excel XP (oinarritzko maila eta maila aurreratua)
- PowerPoint 97, 2000, XP
- Access 97 (oinarritzko maila eta maila aurreratua), Access 2000, Access XP (oinarritzko maila eta maila aurreratua)
- Outlook 2003, XP
- FrontPage XP
- Project XP
- Mandrake 8.2
- OpenOffice.org Writer v-1.1.4
- OpenOffice.org Calc, Calc v-1.1.4
- OpenOffice.org Impress
- OpenOffice.org Math
- OpenOffice.org Draw v-1.1.4
- OpenOffice.org HtmlEditor v-1.1.4
- Web-irisgarritasuna
- Java

### BESTELAKO KASUAK

Euskal Autonomia Erkidegoa ezagutza informatikoak ziurtatzeko txartelaren garapenean aitzindaria izan den arren, egun ez da txartel horiek erabiltzen dituen bakarra.

Horrez gain, Asturiasko Printzerriak antzeko sistema du, ESIk ziurtatua baita ere, eta 5.000 proba baino gehiago egin dira; Gaztela Mantxan proiektu pilotua ari dira gauzatzen prestakuntzarako 16 ikastetxe pribaturekin eta 500 proba baino egin dira.

Nazioartean, Bulgarian ziurtapen-proiektua ari da garatzen ESI. Ziurtagiria IT Card da –Herri Administrazioen Ministerioaren bidez – eta ia 15.000 proba egin dituzte.

Web orriak:

[www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net)

[www.spri.net](http://www.spri.net)

[www1.euskadi.net/reg/](http://www1.euskadi.net/reg/)





28. zk.

2007ko abendua

LABURRAK!!

## Justina

Ba al dago 7 urteko ume bati Justizia zer den azaltzea? Nola? Hori da JustiziaNETen erronkarik garrantzitsuenetakoa, Justizia Administrazioaren web-orria, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak argitaratu eta kudeatzen duena: 6 eta 10 urte bitarteko umei Justizia hurbiltzea.

Arrazoi hori dela-eta, alderdi negatibo, ilun eta ezezagun guztiak deuseztatzeko eta gazteenek erraz bereganatzeko eta hauei eguneroko baloreak helarazteko gai den oinarritik abiatzen den proiektua landu zen. Horrela sortu zen "Justina"; **bihotz oneko maitagarria** da, ibilbide birtual baten bidez umei helarazi nahi zaizkien irakaskuntzak modu inplizituan adierazten dituzten sorpresen eta jolasen mundu magikoa ezagutzera gonbidatzen diena.

Justinak egiten duen ibilbidea azken helburura heltzeko zenbait proba eta **jolas** gaintitzean datza. Proba bakoitzak, hodei itxurakoak, defendatzen duen balorearen azalpen-testua du, eta, horrekin estuki lotuta, dagokion jolasa erantzen du; jolas horiek edozein umek behar bezala burutu ditzake; izan ere, ez dira trebetasun edo abilezia handia eskatzen duten probak; publiko hartzailea kontuan hartuta, saguarekin lekualdatze txikiak egitea, piezak aldatzea, puzzleak, erantzun zuzena aukeratzea, egia edo gezurra den erabakitzea, bikoteak lotuz oroimen-ariketan egitea, etab. bezalako ariketetan oinarritzen dira.



Jolaserako esparru horretan umeen inguruko balore unibertsal, kontzeptu eta adibideen bidez (berdintasuna, baterako hezkuntza, minusbalotasuna, familia-ereduak, ekologia, eskola-jazarpenera, gizalegezko portaera, familia-eskubideak, elkartasuna eta justizia) txikienek Justizia hurbilgotik ezagutu dezakete.



Web-orria: [www.justizia.net](http://www.justizia.net)

## EJIE. 25. urteurrena

Pasa den **urriaren 4an** Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE) Vitoria-Gasteizko Arte Garaikideko Euskal Museoan (Artium) 25. urteurrena ospatu zuen.

Ospakizun horretan **Agustín Elizegik** (erakundeko zuzendari nagusia) eman zuen hasiera, eta **Idoia Zenarrutzabeitiak** amaiera (lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua).

Ordubete iraun zuen ekitaldian, **Pedro Luis Uriartek** (Ekonomia eta Ogasun sailburu ohia) ere parte hartu zuen; bera izan zen 1982ko apirilean Informatika Elkarte sortzeko bultzatzaileetako bat.



Ekitaldi horren lema "**Aurrerabidean**" izan zen, eta 1982-2007 denboraldia ospatzeko helburua zuen. Gainera, EJIEko langileak bertan izan ziren eta baita Eusko Jaurlaritzako eta beste euskal erakunde publiko batzuetako ordezkariak ere. Ekitaldi horretan elkartearen hastapenak gogoratu eta orokorrean euskal gizartea, eta, bereziki, euskal Administrazioak dituen erronka berriei aurre egin ahal izateko helburuarekin etorkizunera begiratzen jarraitzea azpimarratu zen.

*60/1982 DEKRETUA, otsailaren 1ekoa, Ekonomia eta Ogasun Sailarena, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S. A. merkataritza-erakunde anonimoaren sorrerari buruzkoa dena.*



*(Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian -EHAA- argitaratua, 1982038. zk., 1982ko martxoaren 23koa).*

EJIEren web-orria: [www.ejie.es](http://www.ejie.es)

